



PRENTSARAKO OHARRA

18/10/19

Kepa Junkerak eta *Sorginak* taldeak kolorea emongo deustie orain 400 urte sorginkeria zala eta ezarritako zigorren ganean Belen Bengoetxea eta Jon Irazabal historialariek izango daben solasaldiari

Doban, leku guztiak bete arte, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Gerediaga Elkartek, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan dagon jardueran parte hartzeko gonbidapena egiten dabe.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, emakumeek gure Lurraldearen historian eta kulturean egin daben ekarpena balioan jarten daben kultur proposamenak bultzatzen jarraitzen dabe.

Batzarretatik hilebete honetan bultzatu dan jarduera programa horren barruan, gaur arratsaldean, Gerediagako Foru Zelaiek Belen Bengoetxea historialariaren (EHU-UPV), eta Jon Irazabal ikerlariaren (Gerediaga Elkartea) arteko “Durangoko Lurraldeetako emakume, kleriko eta laikoen historiaren” ganeko solasaldia jasoko dau. Jardunaldia *Sorginak* taldearen musikak eta dantzek osatuko dabe, Kepa Junkeraren trikitiak lagunduta.

Bengoetxeak eta Irazabalek jarraipena emongo deustee azken hilebeteetan, Durangoko Merinaldeko agintarien aldetik sorgin izatearen salaketea jaso eben hiru emakumeak libre geratu ziranetik 400 urte bete dirala-eta Gerediagako Foru Zelaian egin diran ospakizun ekitaldi ugari.

Jon Irazabalek azken urte honetan egin diran ekitaldi guztien “oso balorazino positiboa” egiten dau. Gerediaga Elkarteko ikerlariaren eretziz beharrezkoa da eleberririk historikoetako topikoak baztertzea eta “iragana errealidadean oinarrituta berreskuratzea”.

Ordu erdiz, Jon Irazabalek zehaztasunez kontauko ditu XVII. gizaldian Gerediagan sorginkeria inguruan izan ziran gertakariak. Bere ikerketa lanak jasoten dauen moduan, 1617. eta 1618. urteen artean eleizak Alonso Salazar y Frías inkisidoreak Zugarramurdiko epaiketen ostean prestatu eban txostena autortu eban. Txosten haretan, sorginkeria kulturarik bako gizartearen mitoen eta bildurren ondoriozko zeozer baino ez zala esaten zan.

Dana dala, Durangoko Merinaldeko agintariek ez eben korrante hori jarraitu. 1617ko irailaren 3an, Gerediagako foru zelaian batutako leialek sorginkeria ekintzen kontrako neurriak eskatu ebezan. 1618an askatu ebezan Astolako kartzelatirik sorginkeria zala eta atxilotututako azkenengo emakumeak.

Belen Bengoetxea historialariari jagokonez, sorginkeriak urte hareetan euki eban garrantzi historikoan eta sorgin izatearen salaketea jasaten eben personen soslaian sakonduko dau. Gertakari horretan zerikusirik handia dauka gertatu izan zan une

historikoak. Holan, Bengoetxeak, Bizkaiak XVII. gizaldian bizi eban krisialdian be sakonduko dau.

Kepa Junkera eta *Sorginak* taldea izango dira jarduerari amaierera emotearen arduradunak, kontzertu bereziagaz. Ikus-entzuleek, euskal trikitilariaren eta zazpi euskal neska gaztek osatutako taldearen arteko lankidetzaz gozau ahal izango dabe. Lankidetzaz horren bitartez, Kepa Junkerak balioan jarri gura izan dau emakumeek musika herrikoia berruian betidanik egin daben beharra. Kepa Junkeraren eta Amets Ormatxea Sorginak taldeko kidearen eretziz, benetako “pribilegioa” eta “ohorea” da “holango ekitaldi berezian parte hartu ahal izatea, leku bikain eta parebakoa, daukan historiarengaitik eta adierazoten dauen guztiarengaitik”.

Ganera, artista biek modu positiboan baloretan dabe gaurkoa moduko ekitaldiak bultzatzea, horreetan, normalizazioaren bidez, orain 400 urte emakume hareek bizi izan ebena moduko egoerak azaleratzen diralako. “Une honetan, energia hori guztia, euskal emakumeak berruian darian guztia, erakusteko aukera dogu”, adierazo dau Ormatxeak.

NOTA DE PRENSA

19/10/18

Kepa Junkera y *Sorginak* darán colorido esta tarde en Gerediaga al dialogo entre los historiadores Belen Bengoetxea y Jon Irazabal sobre la imposición de castigos por brujería hace 400 años

De manera gratuita, hasta completar aforo, las Juntas Generales de Bizkaia y Gerediaga Elkartea invitan a participar en esta actividad enmarcada en las Jornadas Europeas de Patrimonio

Las Juntas Generales de Bizkaia siguen impulsando propuestas culturales que ponen en valor la contribución de las mujeres en la historia y la cultura de nuestro Territorio.

Como parte del programa de actividades que desde la institución parlamentaria se ha promovido a lo largo de este mes, esta tarde a las 19:00 la Campa Foral de Gerediaga acogerá un dialogo entre la historiadora Belen Bengoetxea (UPV-EHU), y el investigador Jon Irazabal (Gerediaga Elkartea) en torno a “historias de mujeres, clérigos y legos en las Tierras de Durango”. La jornada se completará con la música y los bailes del grupo *Sorginak*, acompañados por los acordes de la trikitixa de Kepa Junkera.

Bengoetxea e Irazabal darán continuidad a los numerosos actos conmemorativos que en los últimos meses se han llevado a cabo en la Campa Foral de Gerediaga con razón del 400 aniversario de la liberación de tres mujeres que fueron acusadas de brujería por las autoridades de la Merindad de Durango.

Jon Irazabal realiza una valoración “muy positiva” de todas las conmemoraciones que se han celebrado en este último año. El investigador de Gerediaga Elkartea ve necesario desechar los tópicos de las novelas históricas, y “recuperar el pasado desde una realidad”.

Durante media hora, Jon Irazabal narrará con precisión los hechos que acaecieron en Gerediaga durante el siglo XVII en torno a la brujería. Tal y como recoge su investigación, entre los años 1617 y 1618 la iglesia reconoció el informe elaborado por el inquisidor Alonso Salazar y Frías después de los juicios de Zugarramurdi, en el que afirmaba que la brujería era fruto de los mitos y miedos de una sociedad inculta.

No obstante, las autoridades de la Merindad de Durango no siguieron esa corriente. El 3 de Septiembre de 1617 los fieles reunidos en la campa foral de Gerediaga solicitaron medidas contra actos de brujería. No fue hasta 1618 cuando fueron liberadas de la cárcel de Astola las últimas mujeres retenidas por brujería.

Por su parte, la historiadora Belen Bengoetxea profundizará en la trascendencia histórica que tuvo la brujería en aquellos años y en el perfil de las personas que eran acusadas de brujas. Un hecho que también se encuentra condicionado por el momento histórico en el que tuvo lugar. En este sentido, Bengoetxea ahondará también en la etapa de crisis en la que se encontraba Bizkaia en el siglo XVII.

Kepa Junkera y el grupo *Sorginak* serán los encargados de cerrar esta velada con un concierto especial. El público podrá disfrutar de la colaboración entre el trikitilari vasco y este grupo de siete jóvenes vascas, con la que Kepa Junkera busca poner en valor el

trabajo que siempre han realizado las mujeres en el mundo de la música popular. Tanto Kepa Junkera como Amets Ormatxea, integrante de Sorginak, consideran un “privilegio” y un “honor” tener la oportunidad de “poder tocar en un acto tan especial, en un marco también increíble y único, con esa historia y con lo que representa”.

Ambos artistas, además, valoran positivamente el impulso de actos como el de hoy en los que se logra, mediante la normalización, aflorar situaciones como la que sufrieron aquellas mujeres hace 400 años. “Ahora mismo podemos demostrar toda esta energía, todo lo que lleva la mujer vasca”, manifiesta Ormaetxea.